

TREBAKUNTZA 2016-09: LUZATU, OSPATU...

Lehenago ere idatzi izan dugu erdarakadei buruz, eta oraingoan, administrazioko testuetan (eta ahozko erabileran) sarri samar agertzen diren bi erdarakada ikusiko ditugu.

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * 2016ko uztailean egingo den batzarrerako deialdia **luzatu** diogu.
2. * Bilera **ospatu** dute alkateak, arkitektoak eta interesatuek.
3. * Txeke hau **luzatzen** dizut eragindako gastuak ordaindu ahal izateko.
4. * Hileta bihar arratsaldean **ospatuko** da.
5. * Berriatuko Udalak gonbidapena **luzatzen** dizu frontoi berriaren inaugurazio ekitaldirako.
6. * Pilota Elkartekoek baimena eskatu dute, urteroko pilota txapelketa pilotaleku nagusian **ospatu** ahal izateko.

ZUZENKETAK ETA AZALPENAK

Euskarazko LUZATU eta OSPATU ez dira beti gaztelaniazko *extender* eta *celebrar* hitzen pareko. Gaztelaniaz ohikoak dira “*Le extiendo la convocatoria*” edo “*El funeral se celebrará mañana*” bezalako esamoldeak; baina, euskaraz ez dira jatorrak “*Deialdia luzatzen dizut*” eta “*Hileta bihar ospatuko da*” erako itzulpenak.

1. * 2016ko uztailean egingo den **batzarrerako deia egin diogu / batzarrera deitu dugu**.
2. * Bilera **egin** dute alkateak, arkitektoak eta interesatuek.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea
www.uema.eus

3. * Txeke hau **ematen / bidaltzen** dizut eragindako gastuak ordaindu ahal izateko.
4. * Hileta bihar arratsaldean **egingo / izango** da.
5. * Berriatuko Udalak **gonbidapena egiten dizu / bidaltzen dizu** frontoi berriaren inaugurazio ekitaldirako.
* Berriatuko Udalak **gonbidatzen zaitu** frontoi berriaren inaugurazio ekitaldira.
6. * Pilota Elkartekoek baimena eskatu dute, urteroko pilota txapelketa pilotaleku nagusian **jokatu** ahal izateko.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

U d a l e r r i E u s k a l d u n e n M a n k o m u n i t a t e a

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99